

Gradu Amaierako Lana

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

Historia Garaikidea Saila

UPV/EHU

Eskoziako gaelikoa: iragana eta oraina

Egilea: Miren Agirrezabal Etxeberria

Zuzendaria: Xabier Zabaltza Pérez-Nievas

Aurkibidea

1. Laburpena, metodologia eta iturriak.....	3
2. Sarrera historikoa: XVIII. mendera arte	5
3. XVIII. mendetik XXI. mendera	9
4. Gaur egungo egoera	15
5. Hizkuntza eta Nazionalismoa.....	19
6. Ondorioak.....	23
7. Iturriak.....	25
7.1. Erabilitako bibliografia.....	25
7.2. Bestelako iturriak	26

1. Laburpena, metodologia eta iturriak

Jarraian aurkeztuko dudan Gradu Amaierako Lanaren helburu nagusia Eskoziako gaelikoaren iragana eta oraina aztertzea izan da. Itzulpengintza eta Interpretazio Graduko ikasle naizenez, ez da harritzekoa hizkuntzekin lotutako gai bat jorratu izana, betidanik izan baitut hizkuntzenganako interesa. Gainera, euskal itzultzaile izango naizen aldetik, euskara ez den eremu urriko beste hizkuntza baten historia aztertzea lan interesgarria izan da.

Metodologiari dagokionez, Umberto Eco-ren *Cómo se hace una Tesis* liburua izan da oinarria, eta hor ematen dituen argibideei jarraituz osatu da egitekoa. Lan hau ikerketa batean emaitza izan da. Lehenik eta behin, Europako eremu urriko hizkuntza bat aukeratu behar izan nuen, eta behin hautatutakoan lanari ekin nion. Aukeratutako hizkuntza Eskoziako gaelikoa izan zen. Aditu desberdinen liburuak informazio iturri nagusia izan dira. Gaian aditu diren ikerlariengana ere jo dut lana osatu asmoz informazioa bilatzeko, beraz, iturri desberdinak erabili ditut. Lehenengo bi ataletarako batez ere liburuetara jo dut, eta hirugarren eta laugarren atalak osatzeko, berriz, artikuluetara, ikerlariengana eta erakundeetara.

Lehenengo atalean XVIII. mendera arte Eskoziako gaelikoak izan duen garapena aztertuko da, eta gizarteko alor desberdinak uztartuko dira, esaterako, hezkuntza, erlijioa eta abar. Aipatzekoa da XI. mendean gertatu zen gaelikoaren beherakada Eskozian Malcolm eta Margaret tronuan zeudela. Horiek ingelesaren aldeko jarrera zuten, orduantxe beherakada hasi zen.

Bigarren atalean XVIII. mendetik XXI. mendera bitarteko hizkuntzaren garapenean arreta jarriko da, aurreko atalean bezalaxe alor desberdinen inguruan azalpenak emanez. Garai honi buruz zerbait aipatzekotan XVIII. eta XIX. mendeetan Eskoziako Highlands-etan, edo gaelikoz A' Ghàidhealtachd (Eskoziako Goierri) gertatu zen behartutako lekualdatzea da. Lekualdatze horiek *Highland Clearances* moduan ezagutzen dira, edo gaelikoz *Fuadach nan Gàidheal*. Gaelikoak bertan zuten indar gehiena, hizkuntzaren kalterako suertatu ziren *Highland Clearances*. Ahaztu gabe 1872. urtean hezkuntzan ezarri zen legea, zeinak gaelikoa ikasgeletan debekatu zuen, modu horretan hizkuntzaren beherakada azkartu zen.

Ondoren, Eskoziako gaelikoaren gaur egungo egoera aztertuko da, eta gizarteko esparru desberdinen inguruan arreta jarriko da: erakundeak, komunikabideak, hezkuntza eta teknologia. Atal hau osatu ahal izateko, liburuetara baino gehiago, elkarteetan web orrialdeetara jo dut, eta, aipatu bezala, elkarte eta aditu desberdinekin harremanetan jarri naiz. Horrek gaur egungo egoeraren berri izateko parada eman didalarik. Honakoak dira lanean aipatuko diren elkarteak: Eskoziako Alderdi Nazionala, Eskoziako Parlamentua, Scotland Education eta Oban Times; baita teknologian eta eremu urriko hizkuntzetan aditu den Michael Bauer ere.

Lanaren hipotesia hizkuntza eta nazionalismoa oso lotuta egon ohi diren bi termino direla da, baina, Eskoziak indar handia duen nazionalismoa badu ere, nazionalismo horrek, ez dio ia garrantzirik ematen euren hizkuntza eta kulturari. Horren inguruan arituko naiz, hain zuzen ere, lanaren laugarren atalean. Bertan bi nazionalismo mota bereiziko dira (nazionalismo “zibikoa” eta nazionalismo “etnikoa”), eta Eskoziako nazionalismoaren kasua garatuko da, zeina herritarren borondatean oinarritzen den. Ondoren, lan honetan atera ditudan ondorioak aurkeztuko ditut, baita erabilitako iturriak ere.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot nire Gradu Amaierako Lanaren zuzendariari, Xabier Zabaltzari. Bere laguntzarik gabe ezinezkoa bailitzateke lan hau aurkeztu dudan moduan egitea. Gai honetan berak duen ezagutza eskaini eta laguntzeko prest azaldu da momentu oro, bai posta elektronikoaren, bai tutoretzen bitartez. Era berean, eremu urriko hizkuntzen inguruko bibliografia zabalean informazio egokia bilatzen lagundu dit.

2. Sarrera historikoa: XVIII. mendera arte

Historiaurrera joanez gero, badirudi Paleolitikoan eta Mesolitikoan Britainia Handiko populazioa oso txikia zela, eta batetik bestera bidaiatzen zutela euren beharren arabera. Orduan hitz egiten zituzten hizkuntzen inguruan, berriz, ez dago batere daturik. Horiek izan ziren, beraz, ondoren iritsiko ziren zelten aurrekoak. Hori dela eta, zeltak iritsi zirenean euren hizkuntzaren eta zeltenaren arteko nahasketa gertatu zen. Eta, hori da zeltak iritsi aurretik Britainia Handian hitz egiten ziren hizkuntzen inguruan indar gehien duen hipotesia, gehiago egon badaude ere. Ez daude ziur zeltak Britainia Handira noiz iritsi ziren, batzuek diote Brontze Aroan izan zela, besteek, berriz, Metal Aroan (Price, 1984: 17). Eskoziako gaelikoa hizkuntza zelta da, eta, beraz, garai horretan oraindik ere ezin daiteke jardun Eskoziako gaelikoaren inguruan.

Hizkuntza zeltak bi taldetan bereizten dira: hizkuntza britonikoak eta hizkuntza goidelikoak. Britonikoen taldean bretoiera, galesa eta kornubiera daude; eta goidelikoek taldean Eskoziako, Irlandako, eta Mann uharteko gaelikoa. Eskoziarrak goidelikoek ondorengoak dira, Irlandako Ulster probintziatik (Ulaidh) Kaledonian (gaur egungo Eskozia) ezarri zirenak V. mendean (Zabaltza, 2006: 109). Gaur egun Argyll kosta (Earra-Ghàidheal, gaelikoz) dagoen tokira iritsi ziren goidelikoak, eta Dalriada edo Dál Riata izena jarri zioten erreinuari (Price, 1984: 50); erreinu hori Irlandako iparraldeak eta Eskoziako mendebaldeko kostak osatzen zuten. Ordura arte Eskoziako, Irlandako eta Mann uharteko gaelikoak ezaugarri berdinak zituzten. Aipatu bezala, hiru horiek hizkuntza zeltikoak dira, eta hizkuntza zeltikoen barruan goidelikoek taldekoak (Ellis, 1993: 21). Eskozia *Alba* esaten da gaelikoz.

Piktoek eta eskoziarrek harremana izan zuten IX. mendean. Piktoak Eskoziako iparraldeko jatorri ezezaguneko piktoera hizkuntza hitz egiten zutenak ziren. Baina, IX. mendean bertan, Eskoziako hego-mendebaldea eskoziarren eskuetan geratu zen. Ordurako jada, elebitasuna zen nagusi zonalde horietan, hau da, gaelikoa eta anglo-saxoia hitz egiten ziren. Modu horretan, bi hizkuntza horiek piktoera hizkuntza ordezkatu zuten (Price, 1984: 50).

Eskoziako administrazioan gaelikoak Erdi Aroan jada (V-XV. mendeak) indar gutxi izan zuen, izan ere, latina, frantsesa eta ingelesa gailentzen zitzaizkion (Price, 1984: 52). XI. mendearekin batera etorri zen gaelikoaren beherakada. Eskoziako MacBeth (Mac Bheatha) erregearen heriotzaren ondoren, hain zuzen ere. Malcolm III.a (Máel Coluim)

bilakatu zen Eskoziako errege 1054. urtean, eta Margaretekin ezkondu zen. Margaretengingalesaren aldeko jarrera sutsua zuen, eta gaelikoaren aurkakoa (Ellis, 1985: 34). Horien jarrerak bultzatuta, gaelikoaren beherakada etorri zen XI. mendetik aurrera.

Gainera, XI. mendera arte Eskoziak kultura eta hizkuntza zeltikoa zuen oinarri. Iparraldean gaelikoa hitz egiten zen, eta hegoaldean britoiera. Lehen aipatu bezala, britoiera hizkuntza britonikoan taldekoa da. Baina, hegoaldean britoiera hitz egiten bazen ere, gaelikoa lekua kenduz joan zitzaion britoierari, hura baitzen Eskoziako garai hartako *lingua franca* (Ellis, 1985: 29).

Hortik aurrerako mendeetan, baina, XI-XII. mendeetan, hain zuzen ere, Eskozia ingelesdun bilakatzen hasi zen (Price, 1984: 50). XII. mendean etorriko zen, hain zuzen ere, ingelesen inbasioa:

The Anglian linguistic invasion began to gain ground significantly from the twelfth century, encouraged by the setting up, in the east, of the burghs, important centres of commerce, and Gaelic was in due course supplanted at the king's court in the twelfth and thirteenth centuries (Thomson, 1983: 90).

Eskozia ingelesdun bilakatzeko prozesu horretan, XII. mendean ezarri zen sistema feudalak ere izan zuen zerikusirik. Ingalaterrarekin harremanak indartu, eta ingelesak eta frantsesak indarra hartu zuten Eskoziako gorteetan, izan ere, lehen aipatu dudana bezalaxe, Erdi Aroan Eskoziako Gorteetan gaelikoak ez zuen indar handirik izan (Price, 1984: 50). Hala ere, gaelikoa hegoaldeetik guztiz ezabatzeko urteak behar izan ziren; XIV. mendean hasi ziren Lowlands-ak, edo gaelikoz A' Ghalldachd (Eskoziako Beterri), ingelesdun bilakatzen (Price, 1984: 51). Baina gaelikoa ez zen erabat ezabatu Lowlands-etan XVIII. mendera arte (Ellis, 1985: 36). XII. mendetik 1493ra Eskoziako Uharteetako Jaunaren probintzia independente izan zen. Probintzia hori mendebaldeko irlek eta lurraren ipar-mendebaldeak osatzen zuten, eta independente izanik, hori izan zen Eskoziako gaelikoaren puntu indartsuenetako bat; horri zor baitzaio, neurri handi batean, hizkuntza bizirik mantendu izana (Price, 1984: 52).

Eskozian gaelikoz idatzitako lehen testua XII. mendean monasterio zeltiko batean aurkitu zuten, Aberdeen hiritik 40 bat kilometrora, Aberdeen gaelikoz Obar Dheathain deitzen da. Honela dio *The Languages of Britain* liburuak aurkitu zituzten lehenengo testu horien inguruan: “But if those notes are undeniably both Scottish and Gaelic, they are not “Scottish Gaelic” insofar as that term relates to a specifically Scottish and non-Irish form of the language” (Price, 1984: 48). Eta berriro ere liburuak aipatzen du

aurkitutakoak ez zuela zerikusirik gaur egungo Eskoziako gaelikoak dituen ezaugarriekin. Jacksonen aipu bat biltzen du *The Languages of Britain* liburuak eta honela dio: “There are indeed a few minor phonetic and morphological features that may or may not present the faint beginnings of one or two popular Scottish Gaelic characteristics” (*apud* Price, 1984: 48). Beraz, badirudi gaelikoaren ezaugarri linguistikoak aldatuz joan direla urtez urte.

Lehen aipatu dut, hasiera batean Eskoziako gaelikoak, Irlandakoak eta Mann uharteko hizkuntzak ezaugarri berdinak zituztela. Gerora, XIII. mendera arte hainbat desberdintasun bereizi ziren hiru hizkuntza horien artean, eta XV. mendetik aurrera hizkuntza bakoitza bere bidea egiten hasi zen (Price, 1984: 36).

XIV. mendean oraindik ere Eskoziako gaelikoa Eskoziako Lowlands erdialdeko populazioaren zati handienak hitz egiten zuen (Price, 1984: 51). Eskoziako hego mendebaldean gaelikoa hitz egiten zuten XVI. mende erdialdera arte, baina XVII. mendean desagertu egin zen Eskoziako zati horretan. Beste toki batzuetan, ordea, beranduago zabaldu zen gaelikoa; esaterako, gaur egun Eskoziaren zati den Orkeney artxipelagoan, izan ere, bertan norse hizkuntza hitz egiten zen lehen. Orkeney artxipelagoa, edo gaelikoz Àrcaibh, XIII. mendera arte ez zen Eskoziaren zati izan, eta norse hizkuntza IX. eta XIII. mendeetan Eskandinavian hitz egiten zen hizkuntza germaniarra da (Price, 1984: 195).

1560an Eskoziako Erreforma sortu eta Eskozia protestante bilakatu zen. Horrela, gizartean gaelikoaren aurkako jarrera zabaldu zen, izan ere, protestantismoaren ideiak zabaltzeko arazo gisa ikusten zuten hizkuntza (Ellis, 1985: 39). Beranduxeago, 1603an *Union of Crowns* izeneko gertatu zen, gaelikoz *Aonadh nan Crùintean* deitzen zaio, eta orduan, Eskozia, Ingalaterra eta Irlanda elkartu egin ziren. Horren ondorioz, gaelikoaren aurkako ideia are gehiago indartu zen (Ellis, 1985: 42). Baina, ingelesen gaelikoarekiko aurkako jarrera hori ez zen “legala” izango 1595. urtera arte. Urte horretan *Privy Council Act of James VI of Scotland* ezarri zen; nahiz eta lehen esan bezala, ordurako jada gaelikoa hizkuntza zapaldua zen (McIncyre, 2009: 2).

Eskoziako gaelikoaren tradizio idatziari dagokionez, badu tradizioa poesian, eta aurkitutako lagin zaharrenak XVI. mende hasierakoak dira. Prosak, berriz, ez du beste literatura arloek bezainbesteko garrantzirik izan. 1567an inprimatu zen gaelikoz lehen

liburua. Hain zuzen ere, Bishop Carswell-en *Book of Common Order* liburuaren gaelikozko itzulpena: *Foirm na n-Urrnuidheadh* (Price, 1984: 49).

XVI. eta XVII. mendeetan Eskoziako botere politikoa Lowlands-etan pilatuta zegoen, eta Lowlands-etan dagoeneko ingelesak indar handia zuen. Horrek Eskozia osoan eragina izan zuen, baita gaelikoaren erabileran ere, izan ere, ordurako hegoaldean apenas zuen indarririk, eta gaelikoari ez zion batere mesederik egin botere politikoa hegoaldean pilatzeak, horrela, ingelesa gailentzen baitzitzaion (Price, 1984: 51).

XVII. mendean aipatzeko beste gertakari garrantzitsu bat bada. Estuardo Etxeari (Stuart ingelesez eta Stiùbhart gaelikoz) Ingalaterrako Koroa eskaini zitzaion Elizabet I hil zenean. Estuardo Etxea 1371 eta 1603 urteen bitartean Eskoziako erregetzan egon zen familia da. Modu horretan, Eskoziako James VI, Ingalaterrako James I bilakatu zen. Honen jarrera ingelesaren aldekoa zen, eta, gainera, batasunaren jarraitzaile sutsua zen. Bere batasunerako jarrera horrek, baina, ez zuen nahi zuena lortu, eta ingelesek ez zuten haren plana onartu 1607an (Ellis, 1993: 39).

XVII. mendean hainbat legeren ezarpenak Eskoziako hezkuntza sistemaren hizkuntza politikan eragina izan zuen, jarraian aurkeztuko dizkizuedan adibideak dira horren erakusgarri. 1609an *Statutes of Iona* ezarri ziren, eta, Eskoziako Highlands-etako klaneko liderrek euren oinordekoak Lowlands-etako eskola ingeles protestanteetara bidaltzen zituzten, ideia horiek jarraituz hezteko. Honela dio *The Revival of Scottish Gaelic Through Education* liburuak hartutako jarrera horien inguruan:

In the year 1609, in a law that is known as the Statutes of Iona, the Scottish Government began a series of measures that clearly stated in the intention of eradicating Gaelic from Scotland in favor of English. This program of anglicization, which at the time was thought of as bringing the benefits of civilization, progress and general enlightenment to a benighted area –the Highlands of Scotland- is now recognized as a nearly 400 year pogrom of cultural genocide (McInyre, 2009: 144).

Lege honek ingelesaren alde hartu zuen bideari jarraipena eman zion 1616ko *Act of the Scottish Privy Council* legeak. Horrela, ingelesa unibertsalizatu zen, eta eskola guztietan ezarri. Modu horretan, beraz, gaelikoa alde batera utzi zuten. Eskoziako Parlamentuak bi lege horiek onartu zituen 1631n, eta abian jarri zituzten neurri horiek 1646an, eskola guztietan ingelesa ezarriz. Nahiz eta 1662an legea debekatu, 1696an berriro ere martxan jarri zuten *Act for the Settling of Schools* izenarekin (Price, 1984: 53).

XVII. mendean ordura arte izandako gaelikoaren aurkako jarrerak bere horretan jarraitu zuen. Hezkuntzan esaterako, 1616an gaelikoa ezabatzeko *School Establishment Act* izenekoak martxan jarri zen, ondoren berriro ere beste lege batzuen bidez errepikatuko zena, 1631, 1649 eta 1696 urteetan (Ellis, 1985).

Eskoziako elizari dagokionez, XVII. mendean kontraesana zegoen (Price, 1984: 53). Alde batetik, ingelesaren eta presbiterianismoaren alde agertzen ziren, baina, bestetik, gaeliko elebakarrak zirenak ebanjelizatzeke, beharrezkoa ikusten zuten gaelikoaren erabilera elizan. Hori dela eta, 1690etik aurrera, the General Assembly of the Church of Scotland-ek hainbat neurri hartu zituen gaelikoaren erabilera sustatzeko (Price, 1984: 53).

Aipatzekoa da gainera, XVII. mende amaieran eta XVIII. mende hasieran Highlands-etan gertatu zen krisi ekonomiko zein soziala, zeinak Highlands-ak ustera eraman zituen, eta Highlands-ak izanik gaeliko hiztun gehienak zituztenak, eragin nabarmena izan zuen (Price, 1984: 49).

3. XVIII. mendetik XXI. mendera

Lehenengo atalaren amaieran azaldu bezala Eskoziako elizak jarrera kontraesankorra zuen gaelikoarekiko, eta, XVIII. mendearen erdialdera arte Eskoziako indar erlijiosoek gaelikoaren aurkako jarrera erakusten zuten (Price, 1984: 53).

1707an *Act of Union* izeneko tratatua onartu zen, Ingalaterraren eta Eskoziaren arteko tratatua, hain zuzen ere, eta gaur egungo Britainia Handiaren sorrera izan zen; horrela, Britainia Handiko hizkuntza administratibo nagusia bilakatu zen ingelesa. Horrek kalte nabarmena egin zion gaelikoari, izan ere, ordura arte Highlands-etan jende gehienak gaelikoz hitz egiten zuten, ordutik aurrera, baina, beherakada etorri zen (Ellis, 1993: 40). 1707an, Eskoziako biztanleria milioi batetik gorakoa zen, gehienak landa-guneetan eta Tay ibaiaren iparraldean bizi zirelarik (Hutchinson, 2005: 19). Horietatik 350.000 inguruk gaelikoz hitz egiten zuten (Hutchinson, 2005: 20).

Eliza presbiterianoa gaelikoarekiko tolerantea zen, baina 1709an sortu zen SSPCK (the Society in Scotland for Propagating Christian Knowledge) elkarteak erabat aurka agertu zen hasieratik, 1716. urtetik gutxi gora behera, euren helburua gaelikoa baztertzeko izanik (Price, 1984: 53). Horretarako, eskola erlijiosoak ireki zituzten

presbiterianismoak indarra zuen zonaldeetan, non gaelikoa erabat debekatuta zegoen hizkuntza izan zen (Hutchinson, 2005: 25).

Gainera, 1745eko Charles Edward Stuart-en (Tagraiche Óg, gaelikoz) matxinadaren ondoren, gaelikoarekiko espirituak indarra galdu zuen, eta, modu horretan bikoiztu ziren gaelikoa indartzeko arazoak. Charles Edward Stuart Britainia Handiko erregegaia eta jakobiten matxinadaren liderra izan zen, *Young Pretender* moduan ere ezagutzen zena (Price, 1984: 53).

XVIII. mende erdialdera arte, beraz, boteredunek eta erlijiosoek ez zuten gaelikoaren aldeko jarrerarik. Baina, nahiz eta gaelikoaren aurkako jarrera oso zabalduta egon, biziraupenaren alde egiten zuten hainbat elkarte ere sortu ziren garai berean: The Gaelic Society of London, esaterako. Beraz, nahiz eta orokorrean aurkako jarrera nagusitu, bazegoen gaelikoaren alde agertzen zenik ere (Ellis, 1984: 45).

Gaelikoa indartzeko sortzen ziren elkarteek indar gutxi zutelarik, 1782an, egoerak okerrera egin zuen. *Scottish Clearances* gertatu zen, edo “Highlands-etako garbiketa” moduan ezagutzen dena; hori behartutako tokialdatzea izan zen, eta XVIII. mende erdialdetik XIX. mende erdialdera gertatu zen. Behartutako tokialdatze hori nekazaritzako prezioen ondorioa izan zen (Ellis, 1993: 69). Horregatik, gaelikoz hitz egiten zen eremu askotan populazioak behera egin zuen, eta hizkuntzaren beherakada ekarri zuen (Price, 1984: 54). *A Waxing Moon* liburuak Highlands-etako populazioaren beherakada izugarria izan zela baieztatzen du: “In the space of less than 50 years, the Highlands became one of the most sparsely populated areas in Europe” (Hutchinson, 2005: 237). Tokialdatze hori Europako beste hainbat herrialdetan gertatu bazen ere, ez zuen Eskozian izan zuen eraginik izan:

Such shifting of rural populations occurred throughout Europe as a result of changes in land use; what distinguished the Highland experience was that it occurred relatively late, and was both sweeping and brutal because the Highland landlord possessed powers more unrestricted than those of any other in Europe (Thomson, 1983: 44).

XIX. mendeko Highlands-etako egoera horrek bultzatuta lehen hiru urteetan 10.000 lagun baino gehiago joan ziren Kanadara (Hutchinson, 2005: 237). Horrela, beraz, Eskoziako beherakadarekin etorri zen Nova Scotiako (Kanada), edo gaelikoz Alba Nuadh, gaelikoaren gorakada, eta orduz geroztik bertako lehenengo hizkuntza da gaelikoa (Ellis, 1993: 126). Horrekin batera aipatzekoa da XIX. mendean eta XX. mende hasieran gaelikoz idatzitako argitalpen gehienak Kanadan izan zirela, Eskozian

hizkuntza oso zapalduta zegoelako. Lekualdatze horien ondorioz joandako eskoziarrak Kanadara ez ezik, Australia eta Estatu Batuetara ere joan ziren (McInyre, 2009: 3).

Eskoziako ipar mendebaldeko egoera XIX. mende hasieran, beraz, oso txarra zen. Nagusi ziren gaixotasunak, goseteak, leku aldatzeak eta emigrazioa. Horrek guztiak gaelikoari kalte nabarmena baino ez zion egin (Hutchinson, 2005: 22). Eta Highlands-etan populazioak behera egiten zuen bitartean Lowlands-etako hiriguneetako populazioa gora zihoan industrializazioaren eraginez (Hutchinson, 2005: 22).

Indar askok Eskoziako gaelikoaren aurka egiten bazuten ere, XVIII. mendean poesiaren loraldia gertatu zen. Testamentu Berria gaelikoz ez zen inprimatu 1767. urtera arte, eta Testamentu Zaharra 1801. urtera arte. Neurri handi batean itzulpen horiek SSPCK elkarteari zor zaizkio, izan ere, XVIII. mendean erlijioa gaelikoz zabaltzeko beharra ikusi zuten, gaeliko elebakarrengana ere hel zitezen erlijio testuak. Gainera, jarrera hori ikusirik harritzekoa bada ere, SSPCK elkarteak gaelikoz Testamentu Berria argitaratzearen aurka agertu zen (Hutchinson, 2005: 26). Horren ondoren etorriko zen XIX. mendeko beherakada. Beherakada hori XVIII. mende amaieran eta XIX. mendearen hasieran Eskozian sortu zen krisi ekonomiko eta sozialari zor zaio (Ellis, 1985: 49).

SSPCK elkarteak zituen ideien kontrakoekin sortu zen 1811n beste elkarte bat: The Edinburgh Society for the Support of Gaelic Schools (Hutchinson, 2005: 27). Elkarte horrek Bibliaren gaelikozko itzulpenak Highlands-etako eskoletara bidali zituen, modu horretan, hizkuntza zabalduz. Gainera, Biblia jada gaelikoz idatzita zegoenez Free Church of Scotland-ek gaelikoarekiko kezka erakutsi zuen, eta 1851rako 600-700 eskolari indarra eman zion elkarteak. Laguntza eman zien eskola horietako gehienetan gaelikoa irakasten zuten (Hutchinson, 2005: 28). Gizartean jarrera itxia nagusi bazen ere, XVIII. mende amaieran gaelikoarekiko jarrera tolerantetagoa zabaldu zen. Horren erakusgarri da, esaterako, SSPCK elkarteak ordura arte gaelikoarekiko izandako jarrera itxiaren ondoren erakutsi zuen jarrera irekiagoa. Adibidez, SSPCK elkarteak Testamentu Zaharra eta Berria itzultzeko bultzada eman zuen, hiztun gaelikoak ziren haurrei lehenik gaelikoz irakurtzen irakastearen alde egiten zuten, eta ondoren ingelesez. Gainera, 1828. urtean eskuliburuak gaelikoz sartu ziren hezkuntzan (Price, 1984: 54).

XVIII. mende amaierako jarrera tolerante horren ondoren etorriko zen hezkuntzan gaelikoa sustatzeko hainbat elkarteren sorrera, horien helburu nagusia hezkuntzan gaelikoa sustatzea izanik. Baina, hezkuntzari dagokionez aurrera atera ziren legeek gaelikoaren aurkako jarrera zuten. Adibidez: 1872ko *The Education Act* izeneko legeak hezkuntza unibertsalizatu zuen 5-13 urte bitartekoengan, baita denen eskura jarri ere; baina lege honek debekatu egin zuen gaelikoaren erabilera hezkuntzan, ikasgeletan ingelesa inposatuz (Hutchinson, 2005: 8). Horrek jarraipena eman zion gaelikoaren beherakadari (Price, 1984: 54).

No provision was made in the Act for Gaelic education or for education through the medium of Gaelic despite the fact that many of the previously private schools run by societies and churches, had made provision for the language. Thus began another phase in the decline of the language and the culture (Boyd, 2011: 3).

Horrela, aurretik aipatutako elkarteek gaelikoaren alde eginiko ahaleginak bertan behera geratu ziren. Eta *A Waxing Moon* liburuako aipu batek dioenez, lege horrek gaelikoari egin zion kaltea Highlands-etako tokialdatzeak egindakoa baino handiagoa izan zen:

A distinguished Scottish educationalist, Farquihar MacIntosh, would a century later deplore “the fact that Gaelic was excluded from the school curriculum by the Education Act of 1872. That was probably the most serious blow that Gaelic suffered, more than it did by the clearances or even by the terrible toll that was taken of Gaelic speakers in the First World War” (Hutchinson, 2005: 29).

Lege horrek arazo ugari sortu zituen gaelikoz hitz egiten zuten familietan. Gaelikoa soilik gurasoengandik jasotzen zuten haurrek, eta haur horiek ingelesa azkar batean ikasi behar izaten zuten eskolan besterik erakusten ez zutelako. Beraz, garai hartan gaelikoa transmititzeko modu bakarra ahoz ahokoa zen (Hutchinson, 2005: 30). Gainera, eskolan umeak zigortu eta jo egiten zituzten gaelikoz hitz eginez gero (Hutchinson, 2005: 237).

Garai horretan, XIX. mendean, hain zuzen ere, gaelikoa sustatzeko hainbat elkarte sortu ziren. Adibidez: An Comunn Gàidhealach (1899) eta The Gaelic Society of Inverness, edo gaelikoz Comunn Gàidhlig Inbhir Nis (1871). Gaur egun ere, helburu berarekin jarraitzen dute bi elkarteek (Ellis, 1985: 50). Lehenengoaren helburuak biltzen ditu *The Companion to Gaelic Scotland* liburuak, eta honela dio: “[...] it’s aims as currently stated, are to encourage and support the teaching, learning and use of Gaelic; the study and cultivation of Highland literature, history, music, art and traditions” (Thomson, 1983: 48).

Hezkuntzari helduz berriro ere, beste hainbat lege ere ezarri ziren: *The Education Act of 1908*, adibidez, gaelikoari erreferentziarik egiten ez ziona inongo momentuan. Ondorengo 1918ko *Gaelic clause* izenekoak bai, ordea. “The educational needs of Gaelic speakers were acknowledged for the first time when a Gaelic clause was introduced in the 1918 Education (Scotland) Act” (Boyd, 2011: 5). Hala ere, badirudi praktikan ez zuela funtzionatu (Price, 1984: 55). Izan ere, *The Celtic Dawn* liburuak dioenez, 1960ko hamarkadara arte eskoletan zigortuak ziren gaelikoz mintzatzen zirenak. Garbi ikus daiteke, beraz, urtez urte gaelikoarekiko erakutsitako jarrera utzia (Ellis, 1993: 41).

Beste saiakera batzuk ere egin dira hezkuntzan gaelikoa txertatzeko: *The Schools Scotland Code 1956* eta *Education Scotland Act 1962*, esaterako, baina emaitza berriro ere aurreko saiakeren berdina izan zen. Horrela, ondoriozta daiteke, saiakerak eginagatik ere, gaelikoarekiko utzikeria nabarmena izan dela Eskozian, eta garai batean gaelikoz hitz egiten zuten familiei zor zaiela gaur egun gaelikoa bizirik egotea; izan ere, hezkuntzak behin eta berriro zapaltzen zuen hizkuntza (Hutchinson, 2005: 49).

The Celtic Revolution liburuan biltzen diren hainbat datu bildu ditut urtez urte, non hizkuntzaren beherakada ikus daitekeen XIX eta XX. mendeetan:

1. **Taula.** *Urtez urte Eskoziako gaeliko hiztun kopurua zenbakitan eta ehunekotan*

Urtea	Kopurua (zenbakitan)	Kopurua (ehunekotan)
1881.urtea	254.415 hiztun	%6,84
1901.urtea	230.813 hiztun	(ez du ehunekorik ematen)
1961.urtea	80.978 hiztun	%1,66
1971.urtea	88.415 hiztun	%1,8
1981.urtea	79.307 hiztun	%1,6

Iturria: (Ellis, 1985: 49)

XX. mende hasieran sortu zen (1934) Eskoziako Alderdi Nazionala (Scottish National Party, edo gaelikoz Nàiseanta na h-Alba), horren aurretik independentismoaren aldeko beste alderdi bat egon bazen ere: An Comunn Albannach (Scots National Party). 1904. urtean sortu zen alderdi hori, eta 1928. urtean disolbatu. Ondoren sortu zen Eskoziako Alderdi Nazionalaren lehen garaipena 1945eko hauteskundeetan heldu zen, nahiz eta 1960. urtera arte ez zuten independentzia helburu izan (Ellis, 1993: 83). Gainera, Ellis-ek liburu horretan aipatzen du 1960. hamarkadan jada jarrera toleranteagoa zabaldua zegoela gizartean, gaelikoa hizkuntza ofiziala ez bazen ere (Ellis, 1993: 41).

Garrantzitsua izan zen gaelikoa komunikabideetan sartu izana. 1964an eman zuten lehenengo saioa gaelikoz telebistan. Horrela, egunerokoan hizkuntza erabiltzen ez zuen jende askok telebista gaelikoz ikusteari ekin zion, eta hiztunen arteko lotura bat ere sortu zuen. Ordura arte dialektoen arteko banaketa zegoen, eta elkar ulertzeko zailtasunak izaten zituen jendeak, baina, telebistari esker besteen dialektoetara ohitzen joan ziren (Hutchinson, 2005: 69). Indar handiagoa 1981ean hartu zuen gaelikoak komunikabideetan, izan ere, *The Broadcasting Act* sinatu eta horrek, ingelesaz gain beste hizkuntzarik bazen, hizkuntza horretan ere emititu beharra zegoela baitzioen (Hutchinson, 2005: 192).

1972an, hain zuzen ere, gaelikoari hezkuntzan kalte gehien egin zion legea baino 100 urte beranduago, gaelikoa irakasgai bilakatu zen eskoletan, eta orduan irakasleak prestatzeko beharra sortu zen (Hutchinson, 2005: 96). Aipatzekoa da, gainera, hezkuntzak gaelikoari emandako bultzada honekin azken mendean (1980ko hamarkadatik aurrera) ume gehienek hezkuntzaren bidez jaso dutela gaelikoa, eta ez gurasoengandik, lehenago gertatzen zen bezala (Hutchinson, 2005: 112). Beraz, transmisioa ahoz ahoko izatetik hezkuntzaren bidezkoa izatera igaro zen. Bultzada horren ondoren 1986-1987ko ikasturtea izan zen gaelikoz irakatsi zuten lehena (Hutchinson, 2005: 201).

XX. mende amaieran gaelikoaren indartzean esperantza txiki bat egon zen Comhairle nan Eilean gaelikoa sustatzeko elkartearen sortu zenean. Elebitasunera bidean hainbat neurri hartu zituen elkartek 1975ean (*The Comhairle's Bilingual Policy*) (Price, 1984: 67). Plan horri esker, gaelikoa modu askotan indartzen saiatu dira, eta helburu nagusia mendebaldeko irletan ingelesa eta gaelikoa maila berean egotea da, hau da, bai bata eta bai bestea erabiltzeko aukera berberak edukitzea (Comhairle nan Eilean *online*). Gaelikoaren estandarizazioan beste aurrerapauso garrantzitsu bat 1976an *Gaelic Orthographic Conventions* ezarri izana izan zen (McIncyre, 2009: 136), modu horretan, hizkuntza erregulatu zuten, ordura arteko zalantzak arautuz, eta arautu beharrekoiei irtenbidea emanez.

Horrez gain, aipatzekoa da Eskoziako gaelikoa hizkuntza zelta den heinean, 1980an UNESCO-k aurkeztutako proiektua: *Project for the Study and Promotion of Celtic Cultures*. Ikerketa horren helburua kultura zelten azterketa egitea da, baita horiek indartzea ere (Ellis, 1993: 129).

1990. urtean komunikabideetan gaelikoak zuen botere-eza ikusita, Scottish Gaelic Medium sortu zen (Ellis, 1993: 41). Ondoren 2003an emango zen *Communications Act* izenekoak gaelikoz komunikabideak indartu zituen (McIncyre, 2009: 179). Horrela, hain ospetsua den BBC kateak gaelikoz telebista abiarazi zuen: BBC Alba izenekoak, zeinak gaelikoa zabaltzea zuen helburu. Telebistaz gain, irratian ere badu programazioa BBC-k. Eta zinemari lotzen bagatzaizkio, aipatzekoa da gaelikoz lehen filma ez zela estreinatu 2007. urtera arte *Seachd, the Inaccessible Pinnacle* izenekoak, hain zuzen ere (McIncyre, 2009: 187).

Bukatzeko *The Revival of Scottish Gaelic Through Education* liburuan irakur daitekeenez, gaelikoaren biziraupenerako aldaketa garrantzitsuenetariko bat gertatu zen 2004an, ondorengo aipuak biltzen duena, hain zuzen ere:

Perhaps one of the most profound changes in the landscape of the Gaelic revival is the Gaelic Language Act introduced in September 2004 and passed into law in 2005. This legislation established Gaelic as an official language of Scotland and provided a variety of means of funding for its maintenance (McIncyre, 2009:137).

4. Gaur egungo egoera

Atal honetan Eskoziako gaelikoaren gaur egungo egoera aztertuko da, non komunikabideetan, hezkuntzan, teknologian, eta hainbat erakundetan egun duen eragina eta garrantzia azalduko den. Beharrezko informazioa lortzeko artikulua eta liburuetara jotzea baino, elkarte eta adituekin harremanetan jartzea izan da informazio gehien eskaini didana.

Hasteko, aipatu beharra dago Eskozian gaur egun ingelesa, Eskoziako gaelikoa, eta Britainia Handiko keinu hizkuntza direla hizkuntza ofizialak, Lowlands-etan hitz egiten den scots hizkuntzak *hizkuntza tradizionala* izendapena duelarik. Scots hizkuntza germaniarra da, maiz ingelesaren dialektotzat jotzen dena (Astiz, 2014).

Eskoziako gobernuko datu ofizialei erreparatuz, gaelikoak gaur egun 87.000 hiztun ditu, 2011. urteko estatistiken arabera (Scottish Government *Online*). 87.000 horiek gai dira gaelikoa idatzi, ulertu eta erabiltzeko, baina, 58.000 dira egunerokoan gaelikoa darabiltenak. Gainera, aipatzekoa da gorakadaz mintza gaitzkeela, batez ere, adin txikiko hiztunengan eta, beraz, etorkizunera begira biziraupenerako esperantza dago. Gorakada hori, batez ere hezkuntzari zor zaio, gaelikoaren transmisio puntu

garrantzitsuenetakoa baita. Kontuan hartzekoa da datu hauek Eskoziari dagozkiola, izan ere, gaur egun Eskoziako gaelikoa Eskoziako iparraldeaz gain, Kanadako Nova Scotian hitz egiten dela ere aipagarria da. Hitzun horiek garai batean Eskoziatik joandakoen ondorengoak dira.

Gaelikoa mantentze aldera azken urteetan, bai Eskoziako Parlamentuak (Scottish Parliament edo gaelikoz Pàrlamaid na h-Alba), bai Eskoziako Alderdi Nazionalak neurri batzuk planteatu dituzte, eta eurekin harremanetan jarrita neurri horien berri eman zidatenez jarraian plazaratuko ditut.

Eskoziako Alderdi Nazionalarekin harremanetan jarritakoan *The Scottish Government Language Plan 2016-2021* izenekoaren berri eman zidaten (Scottish National Party, 2018). Plan horrek gaelikoa mantentzeko hainbat neurri proposatzen ditu etorkizunera begira, izan ere, “teorian” Eskoziako Gobernuak badaki gaelikoak Eskozian zein balio duen, eta bai sektore publikoan, bai pribatuan, gaelikoa erabiltzera bultzatzen ditu eskoziarrak. Horrez gain, gaelikoa indartzeko egiten dituzten beste hainbat neurriren berri ere eman zidaten, esaterako, Eskoziako Gobernuak urtean BBC ALBA-ri 12,8 milioi libera ematen dizkio gaelikoaren erabilera komunikabideetan bermatzeko, Alderdi Nazionalak Bòrd na Gàidhlig elkarteari ere laguntza ematen dio, Gaelic Language Education ere babesten dute, eta azkenik Glasgow-en, edo gaelikoz Glaschu, dauden bi eskola gaelikoei ere babesa erakusten die. Horietako eskola baten inguruan ere arituko naiz atal honetan (Scottish National Party, 2018).

Eskoziako Parlamentuarekin ere harremanetan jarri nintzen gaelikoarekiko duten jarreraren inguruan galdetzeko. Euren erantzunaren arabera, Eskoziako Parlamentua izan zen lehen erakunde publikoa gaelikoaren inguruan plan bat aurrera eraman zuena: *The Gaelic Language Act (Scotland) 2005*. Gaur egun jada plan horren bigarren zatia amaiara ematen ari zaizkio: *The Gaelic Language Plan 2013-2018*. Eta hurrengo planerako jada publikoki elkartu dira: *The Gaelic Language Plan 2018-2023*. Plan horien guztien helburua bera da: gaelikoa bultzatzea bere biziraupena ziurtatzeko (Scottish Parliament, 2018).

Scotland Education elkartearen informazio eskaini zidan beste elkarte bat. 2011n sortutako elkarte bat da, eta beraien web-orrialdean dioenez: “Education Scotland is a Scottish Government executive agency charged with supporting quality and improvement in Scottish education” (Education Scotlandonline, 2018). Eman zidaten

erantzunaren arabera gaelikoaren erabat aldeko jarrera duen elkarte da, eta hezkuntzan gaelikoa lehentasunetako bat bihurtu dutela baieztatzen dute. Eskoziako identitatearen parte denez, gaelikoa indartzea euren helburuetako bat izanik. Honakoa izan zen euren erantzuna: “Gaelic has become embadded within our role and our priorities” (Education Scotland, 2018). Gainera, Eskoziako Parlamentuaren *Gaelic Language (Scotland) Act 2005* planeko hirugarren atalean aitortutakoak euren betebeharrak dira, eta gaelikoa indartzeko bidean beste elkarte batzuekin lan egitera behartuta daude. Horrez gain, Education Scotland-ek *Quality and Improvement in Scottish education from 2012-2016* informea argitaratu zuen, non lehen aldiz atal zehatz bat eskaini zitzaion gaelikoari. Gainera, aipatzekoa da elkarte horri esker ikasleez gain, irakasleei ere aukerak ematen zaizkiela hizkuntza ikasteko: ikastaroak, esate baterako.

Komunikabideen inguruan ere badago zeresana. Orokorrean gaelikoak ez du indarririk Eskoziako komunikabideetan, nahiz eta komunikabide batzuek tokia uzten dioten. Horietako batzuk aipatuko ditut jarraian. Telebistaren kasuan ez dago ia programaziorik gaelikoz. Aipatzekoa da BBC-k gaelikoz programazioa baduela: BBC ALBA izenekoa da, eta Gobernuak diru laguntzak ematen dizkio. Eta, Irratian ere BBC-k gaelikoz programazioa baduela: BBC Radio nan Gàidheal.

Egunkariei dagokienez, badira hainbat gaelikoz idazten dutenak, edota zutabe edo atal bat edo beste gaelikoari eskaintzen diotenak. Jarraian aurkeztuko dudana da horietako bat: *Oban Times* egunkaria. Eurekin harremanetan jarri nintzen, eta euren erantzunaren arabera gaeliko irakurleari garrantzia handia ematen diote. Astero zutabe bat argitaratzen dute gaelikoz (beste guztia ingelesez), eta horrez gain, gaelikoarekin lotutako gaien inguruko berri ugari argitaratzen dituzte, esaterako, hezkuntzarekin harremana dutenak eta abar. Euren irakurle gehienak ingelesak badira ere, gaeliko irakurleak ere badituztela diote (Oban Times, 2018).

Teknologia, gaurkotasuneko gaia denez, ez dugu atzera egin beharrik gaelikoak izan duen bidea aztertzeko, 1994an izan baitzen gaelikoz sortu zen lehenengo datu-basea sarean. Teknologiaren inguruan eta eremu urriko hizkuntzekin lan egin du Michael Bauer-ek eta, gaelikoaren eta teknologiaren inguruko hainbat datu eman zizkidan berarekin harremanetan jarri ondoren. Teknologian gaelikoa txertatzeko, itzultzaile-lokalizatzaileentzako beharra egoten da, eta, horrela aritu dira lanean 1994tik gaelikoa itzuli-egokitzen. Esan bezala, 1994an hasi zen gaelikoaren ibilbidea teknologian. 1994

eta 2008. urtera bitartean hainbat tresna agertu ziren teknologia gaelikoz erabiltzeko, nahiz eta arrakasta handirik izan ez zuten, izan ere, erabiltzaile gehienek ingelesera jotzen zuten. Gaelikoak 2009. urtean sarean beste 50 bat tresna eskaini zituen, eta, beraz, nahi izanez gero gaelikoz sarean ibiltzeko aukera izugarriak daude. Aurrerapauso horiek izan ziren esaterako, hain ezagunak zaizkigun, *Mozilla Firefox*, *Ubuntu*, *Windows* gaelikora itzuli izana. Hala ere, praktikan oso gutxi dira sarea gaelikoz darabiltenak, eta gehiengoak ingelesa darabil. Aipatzekoa da, gainera, gaur egun hain ezaguna zaigun *Android* adibide txar moduan aurkezten digula Bauerek, izan ere, eremu urriko hizkuntzei ez die garrantzirik ematen, eta ez dute horiek itzultzeko neurririk hartzen (Bauer, 2018).

Horrez gain, sarean gaelikoaren presentzia bermatzeko sortu duten elkarte bat aipatzea ere garrantzitsua da, euren helburua softwareak gaelikoz ere eskuragarri izatea da; IGàidhlig izena du elkarteak, eta esan bezala, helburu nagusia gaelikoaren erabilera sarean indartzea da, eta horretarako neurriak hartzea (Bauer, 2018).

Hezkuntzari dagokionez, gaelikoak bigarren mailako garrantzia badu ere, badira gaelikoz irakasten duten eskolak. Batzuek dena gaelikoz ikasten dute, beste batzuek gaelikoa bigarren hizkuntza moduan ikasten dute, eta beste eskola batzuetan gaelikoa ez da aipatu ere egiten. Gaelikoz irakasten duten eskoletako baten inguruan arituko naiz jarraian.

Glasgow-eko eskola batekin harremanetan jarri nintzen (Glasgow Gaelic School). Bertan Haur Hezkuntza (*Nursery*, edo gaelikoz *sgoil-àraich*), Lehen Hezkuntza (*Primary*, edo gaelikoz *bun-sgoil*), eta Bigarren Hezkuntza (*Secondary*, edo gaelikoz *àrd-sgoil*) irakasten dute, beraz, 3 urtetik 18 urtera bitarteko ikasleak dituzte. Bertara bidaltzen dituzten gurasoetatik gehiengoa (%80) ez da gaeliko hiztuna, baina euren seme-alabak elebidun izan daitezen nahi dute. 1999an ireki zen Glasgow-en lehen eskola gaelikoz; bertan soilik Lehen Hezkuntza irakasten zuten. 2016an ireki zen Bigarren Hezkuntzako lehen eskola gaelikoz, eta hirugarren eskola baterako plana ere eginda dago. Hauek izan ziren euren hitzak bukatzeko: “We are creating the speakers of the future in this school and we hope and believe that the language is not just being kept alive but is a living part of the Scottish landscape, heritage and culture” (Glasgow Gaelic School, 2018). Beraz, badirudi etorkizunera begira gaelikoa hezkuntzan sartzeari oso garrantzitsutzat jotzen dutela, eta horretan lanean jarraituko dutela eskola horretan.

Ez baitute hizkuntza eskola barruko zerbait moduan ikusten, euren identitatearen parte baizik.

5. Hizkuntza eta Nazionalismoa

Azken atal honetan hizkuntza eta nazionalismoaren loturaren inguruan arituko naiz. Hizkuntza eta nazionalismoa elkarrekin joan ohi diren bi termino badira ere, Eskoziaren kasua bestelakoa da. Xabier Zabaltzak *Una historia de las lenguas y los nacionalismos* liburuan dioenez: “Pero incluso hoy existen en Europa nacionalismos en los que la lengua en la práctica (Irlanda), e incluso también en la teoría (Escocia) juega un papel desdeñable” (Zabaltza, 2006: 235). Esan bezala, beraz, oso lotuta egon ohi diren bi hitz badira ere, hasteko, esan beharra dago Eskoziako nazionalismoak ez diola garrantzi handirik aitortzen euren hizkuntza eta kulturari, Zabaltzak dioen moduan. Ezaugarri horiei garrantzia eman ordez, euren interesak, esaterako, historian eta ekonomian oinarrituta daude, eta batez ere, herritarren borondatean.

Hasteko, beraz, bi nazionalismo mota bereiziko ditut, Zabaltzak bere “Neo-eisimeileachd, carson” (“independentzia, zertarako?”, gaelikoz) artikuluan bereizten dituen bezala: batetik, nazionalismo “zibiko” edo politikoa, eta bestetik, nazionalismo “etniko” edo kulturala. Lehenak, herritarren borondatean oinarritzen denak, ez die garrantzi handirik ematen ezaugarri kulturalari (horietako bat litzateke hizkuntza) eta bigarrenak, berriz, bai. Esan gabe doa bi nazionalismo mota horiek teorikoak direla, errealitatean nazionalismo gehientsuek osagai “etniko” eta “zibikoak” nahasten dituztelako. Hala ere, esan genezake Eskoziakoa nazionalismo zibikoaren eredu teoriko horretatik nahiko hurbil dagoela. Euskal Herrikoa erdibidean dago, esanak esan, euskara bigarren mailako osagaia delako haren eguneroko praktikan (betiere Eskoziakoan baino garrantzitsuagoa). Kataluniakoa, aldiz, Espainiako periferiako nazionalismo “etnikoena” da, hizkuntza funtsezko osagarria delako haren jardunean eta haren gogoetan.

Eskozia eta Euskal Herriaren arteko beste desberdintasun batzuk ere aipatzen ditu Zabaltzak artikuluan horretan, esaterako historia eta lurraldetasuna. Eskoziako mugak azken mendetan ez dira aldatu, eta bertan denak, independentistak edo ez, eskoziar nazioko kide sentitzen dira, Eskozia Erresuma Batua osatzen duten lau nazio ofizialetako bat delako, Ingalaterra, Gales eta Ipar Irlandarekin batean. Euskal Herria, berriz, ez da inoiz politikoki existitu, beti egon baita Frantzia eta Espainiaren artean zatiturik. Gainera, gaur egun, baxenabartar, lapurtar, nafar, arabar eta zuberotar asko ez

dira euskal nazioko kide sentitzen (Zabaltza, 2014). Herritarren borondatearekin eta interes ekonomikoarekin batean, historia ere jotzen da Eskozian eskubide iturrizat, bereziki 1707ko *Act of Union*, Erresuma Batua eskoziar nortasuna errespetatuz sortu zuena.

Esaten ari nintzen bezala, Eskoziako kasua berezia da, baita maila teoriakoan ere. Azken batean, Euskal Herriko nazionalismoari, hitzetan behintzat, hizkuntzak ematen dio zentzia hein handi batean. Eskoziakoari ez. “Nazionalitate bikoitza” moduan ezagutzen den mitoa izan da giltzarri horretan. Banaketa nazionala XVI. mendetik datorren ustea da (Ellis, 1985: 38). Honela azaltzen du Xabier Zabaltzak *Una historia de las lenguas y los nacionalismos* liburuan:

Entre los escoceses está muy difundida la creencia en la «doble nacionalidad»: los habitantes de las Highlands/Gàidhealtachd son celtas y su lengua es el gaélico y los de las Lowlands/Galldachd son germanos y su lengua el scots o lallans, variante del inglés. Como casi todas, esta «tradición» puede ser fechada con bastante exactitud ya que fue «inventada» por Gavin Douglas (h. 1474-1522). Si las diferencias «étnicas» entre los diversos pueblos europeos son mínimas, la que pueda existir entre ambas regiones de Escocia es despreciable. En el siglo XI casi toda Escocia era de lengua celta, goidélica en su mayoría (incluida la parte del antiguo reino anglo de Northumbria que quedaría bajo control de los reyes escoceses), con una pequeña minoría britónica, asimilada posteriormente por aquélla. El norse, lengua escandinava, se mantuvo en las islas Shetland/Sealtainn hasta mediados del siglo XIX, cuando fue sustituido por el lallans. Es decir, los escoceses, salvo quizás los de las Shetland, son más semejantes entre sí –y más distintos de los ingleses– de lo que los propios nacionalistas están dispuestos a admitir (Zabaltza, 2006: 76).

Eskoziako nazionalismoak badu berezitasunik, beraz, hasieran aipatu dudana bezala, bai nazionalismo “zibikoaren” adibide garbia delako, bai “nazionalitate bikoitza” eskoziar askoren gogoan erroturik dagoelako (Highlands eta Lowlands-etako nazionalitateen ustezko bereizketa, alegia). *The Revival of Scottish Gaelic Through Education* liburua dioenez, nazionalitate bikoitzari zor zaio, neurri handi batean, gaelikoa mantendu eta zabaltzeko indarririk ez egotea, honela baitio: “Due in part to the cultural split between Highlands and Lowlands, there was never any mass Scottish nationalist motivation for preserving Gaelic in Scotland” (McInyre, 2009: 144).

Hizkuntzari independentismoaren auzian garrantzi handirik ematen ez zaiola erakusteko *Berria* egunkariko “Hizkuntzen Korapiloa” artikuluak biltzen duen adibide bat dakart: “670 orri ditu Eskoziako Gobernuak independentziaren nondik norakoak zehazteko kaleratutako *Paper Zuriak*, baina hamalau bider baino ez da ageri “*language*” hitza. Ingelesari buruz aritzeko horietako hirutan” (Astiz, 2014). Eta artikulu horrek berak behin baino gehiagotan aipatzen duen bezala Eskoziako independentismoaren auzian

debate linguistikoak garrantzi periferikoa du. *Argia* aldizkariko “Eskozia, Katalunia eta Euskal Herria” artikulua dioenez, eskoziarren gehiengoa independentziaren alde agertzen da, ideologia eta nortasun desberdineko eskoziarrak izanagatik ere (Blas, 2014), eta, beraz, euren nazionalismoa integratzaile moduan definitzen du. Integrazio horretan hizkuntza bat ikasi behar ez izateak eragin handia du. Honela dio artikulua:

Katalunia, Eskozia eta Euskal Herriaren artean dauden desberdintasunak faktore askok azaltzen dituzte, halere, elementu klabeetako bat da nazioaren edo komunitatearen definizioa. Eskozian oso malgua da, Katalunian nahikoa eta Euskal Herrian ez hainbeste. Giltza hizkuntza da. Eskozian elementu honek ez du gizartea erdibitzen ez duelako integrazio “nazionalerako” oztoporik jartzen (hizkuntza bat ikastea) (Blas, 2014).

Eskoziako nazionalismoa “integratzailea” da, hain zuzen ere hizkuntzarik ikasi behar ez delako eskubide osoko eskoziar sentitzeko, eta modu horretan, eskoziarren gehiengoa independentziaren alde agertzen dela izan ideologia edo nortasun bat, edota izan beste bat; hizkuntza betiere bigarren mailako elementua izanik (Blas, 2014).

Bestalde, garbi ikus daiteke, azken urteetan Eskoziako Gobernuak gaelikoa hitz egiten den tokietan normalizatzeko aurrerapausoak ematen saiatzen aritu dela, hori izan baitzen Eskoziako Parlamentuarekin eta Eskoziako Alderdi Nazionalarekin harremanetan jarritakoan behin eta berriro azaldu zidatena (Scottish National Party, 2018). Baina, ondoriozta daiteke, aurrerapauso horiek ez direla nahikoa hizkuntza zabaltzeko, eta gizarteak, beraz, hartutako neurriei ez diela erantzunik ematen. Neurri batean “nazionalitate bikoitza” usteari esker, gaelikoa bakarrik Eskoziako parte batekotzat jotzen da, ez Eskozia osokotzat. Euskal Herriko kasuarekiko diferentzia hori ere nabarmenaraztekoa da.

Esan bezala, Gobernuak hartutako neurriek, berez, ez dute helburu gaelikoaren eremua zabaltzea, eta gainera, hiztunen euren eskutik ere utzikeria nabarmena dago. Areago. Egoera diglosiko batean bizi direnez, eskoziar askok ez diote zentzurik ikusten gaelikoz hitz egiteari, horren “praktikoa” suerta daitekeen ingelesa bezalako hizkuntza batekin elkarbizitzan daudela jakinik. *The Languages of Britain* liburuan Oftedal-en aipu batek horixe baieztatzen du: “Although many speakers take a certain pride in their Gaelic mother tongue, they are fully aware of the practical advantages of English (*apud* Price, 1984: 63).

Lehen aipatutako *Berria* egunkariko artikulua ere erreferentzia egiten dio hiztun askok gaelikoarekiko duten utzikeria horri. Michelle McLeod Aberdeengo Unibertsitateko

Gaeliko Departamentuko irakasleak jarrera horien inguruan esandakoak biltzen ditu artikuluak, eta honela dio: “Gaelikoa gutxietsi egin dute urte luzez. Gaelikoz aritzeak ez zuen inolako baliorik, eta tenteltzat hartzen zintuzten, estatuak bultzatu zuen, gainera, jarrera hori neurri batean” (Astiz, 2014). Beraz, estatuak bultzatutako jarrera horri eutsi dio herriak neurri handi batean, eta gaelikoz hitz egiten zutenak askotan baztertuta ere sentitu izan dira, honela dio *A Waxing Moon* liburuak: “Speaking Gaelic was the equivalent of remaining mute, and that was just so utterly insulting, you know” (Hutchinson, 2005: 149).

Urtez urte gaelikoaren aurkako jarrera hori zabaltzen zuen gobernuak, eta modu horretan, gizartea gaelikoaren aurka jartzea zen euren helburu. Hezkuntzaren kasuan ere, umeei sinestarazten zitzairen beraien hizkuntzak ez zuela inolako garrantzirik ingelesaren alboan:

There can be no doubt that one key cause was the constant negative messaging from a state education system, over generations, where Gaelic-speaking children were taught that their language had no real value and as a consequence they were not even taught to read it or write it (Hutchinson, 2005: 187).

Eskoziar nazionalismoa orain arte aipatu bezala, ez da hizkuntzan eta euren kulturaren oinarritzen, baizik eta ekonomian eta herritarren borondatean, eta, beraz, independentziaren kasuan ere garrantzi periferikoa du. Eskozia independente bat hizkuntza propiorik gabekoa litzateke, eta ingelesa litzateke euren hizkuntza nagusia. Hori bera dio *Berria* egunkariko “Hizkuntzen Korapiloa” artikuluan Michelle McLeod-ek: “Independentziarekin ez dugu hiztun igoera ikaragarririk ikusiko, baina, orain bezala, hizkuntza baloratu eta mantendu egingo da. Eskoziako hizkuntzetariko bat izango da, ez Eskoziako hizkuntza” (Astiz, 2014).

Aipatu bezala nazionalitate bikoitzaren ideia nagusia hau da: Highlands-etan gaelikoa hitz egiten da eta Lowlands-etan scots-a hitz egiten da. Scots-ari dagokionez, askotan zalantzan jartzen da hizkuntza ala dialektoa den:

As we have seen, it is possible to view Scots as a group of northern English dialects, but before the Reformation a process of codification, separate from that under way in England, had commenced; this gives Scots, both then and now, a claim to the status of a separate language (Barbour, 2000: 30).

Barbour-ek baieztatzen duenez, beraz, scots-ak hizkuntza estatusa du, nahiz eta oraindik gaur egun gai eztabaidatua izan. Eta, gaelikoari bezalaxe, nazionalismoak Lowlands-etako berezko hizkuntzari garrantzi handirik ematen ez diola ere aipatzen du Barbour-en

liburuak: “The nationalism of Lowland Scottish people certainly does have a linguistic dimension, but a very diffuse one” (Barbour, 2000: 32). Beraz, eskoziarrek bi hizkuntzekiko “estimu” hori izanagatik ere, praktikan nazionalismoak ez du Eskoziako berezko hizkuntzak zabaltzeko ahalegin handirik egiten.

Liburu horretan baieztatzen duenez, XIX eta XX. mendean Eskozian jarrera desberdinen arteko talkak nagusitu ziren; adibidez: gaeliko hiztunak eta scots hiztunak, katoliko eta protestanteak eta abar. Baina talka horien emaitza honakoa izan zen:

The price for all of this in political and cultural terms was the loss of Scottish political independence, and the relegation of Highland culture and the Gaelic language to the status of regional Highland peculiarities, and the relegation of Lallans generally to the status of a group of dialects of English (Barbour., 2000:31).

Laburbilduz, beraz, Eskoziako nazionalismoa nazionalismo “zibiko” moduan definitzen da ezaugarri kulturei (hizkuntza barne) bigarren mailako garrantzia ematen dielako, eta horrez gain, kontuan hartzekoa da Eskozian nazionalitate bikoitzaren ustea urte luzetan zabaldu den zerbait dela, bai gaelikoari, bai Lowlands-etako hizkuntza indartzeari garrantzi handirik eman gabe.

6. Ondorioak

Lan hau egin ondoren atara ditudan ondorioak aurkeztuko ditut azken atal honetan. Helburua, hasieran esan bezala, Eskoziako gaelikoaren iragana eta oraina aztertzea izan da. Saiatu naiz azaltzen zergatik ematen dio hain garrantzi gutxi Eskoziako nazionalismoak berezko hizkuntzari. Hortxe datza haren berezitasuna, beste nazionalismo batzuekin, Euskal Herrikoarekin eta zeresanik ez Kataluniakoarekin alderatuz gero, kasu. Ondoren laburbilduko dudana bezala, zergatikoak bi motakoak dira, historikoak zein ideologikoak.

Gaelikoaren historian aldaketa garrantzitsu bat XI. mendean gertatu zen, 1707ko *Act of Union* baino askoz lehenago. Margaret eta Malcolmek, tronuan zirelarik, gaelikoaren aurkako jarrera bultzatu zuten. Hortik aurrera, beste bi gertakari erabakigarri aipatuko nituzke hizkuntzaren beherakadan indar gehien izan dutenen artean. Batetik, XVIII. eta XIX. mendeetan Eskoziako *Clearances* direlakoak, eta bestetik, 1872. urteko *Education Act*. Lehenengoaren ondorioz gaelikoak indar gehien zuen eremuko populazioaren izugarritzko beherakada etorri zen, eta bigarrenak gaelikoa ikasgeletan debekatu zuen; modu horretan, gaeliko hiztun askok ez zieten euren ondorengoei hizkuntza transmititu,

ingelesarekin elkarbizitzan zeudelarik zentzurik ikusten ez ziotelako, eta, beraz, hizkuntzaren transmisiorako bide bakarra ahoz ahokoa zen.

Baina esplikazio historikoekin batean, maila ideologikoak ere badira. Ateratako ondorio bat, eta, agian nabarmenena, lan honetan bertan behin baino gehiagotan aipatutakoa da. Eskoziako nazionalismoa “zibikoa” da, eta, beraz, hizkuntzak bigarren edo hirugarren mailako garrantzia du, herritarren borondatearen aldean. Independentzia eztabaidagai den bitartean, Eskoziako gaelikoaren hiztun kopuruak beheraka jarraitzen du, eta gaeliko hiztun horietako gehienek ez darabilte euren eguneroko bizitzan. Baina, nazionalismo “zibikoa” ez da gaur egungo zerbait. Lan honetan ikus daiteke iraganetik datorren uste bat dela, XVI. mendean sortutako Eskoziako nazionalitate bikoitzaren mitoaren ondorengotzat jo baitaiteke

Aurrekari historiko zein ideologikoek baldintzaturik, Eskoziako nazionalismoak, bai iraganean, eta bai orainean ezin izan du – edo ez du nahi izan - XI. mendean hasi zen egoera irauli. Eta, ordutik gaur egunera beherakada horrek jarraipena izan du, nahiz eta egun gaelikoaren aldeko elkarte ugari sortu diren, eta hezkuntzari esker hizkuntza zabaltzen ari den. Elkarte horiek ez dute indar handirik, eta, beraz, lorpenak ere ez dira oso agerikoak. Nahiz eta teoriarik Parlamentuak eta Alderdi Nazionalak gaelikoaren borrokan dihardutela dioten, badirudi praktikan gauzak bere horretan jarraitzen dutela. Gainera, hezkuntzan ere gaelikoa txertatzen saiatzen ari dira, baina umeek gaelikoa eskolan ikasten dutenez, ez dute euren egunerokotasunekotzat jotzen, eta, beraz, gaelikoz hitz egiteko gai izanagatik ere, ez darabilte eskolatik kanpo. Ondorioz, garai bateko ahoz ahoko transmisioa eten eta batez ere, hezkuntzaren bidez bereganatzen dute gaelikoa.

Laburbilduz, Eskoziako gaelikoak erdi arotik hiztunen etengabeko beherakada izan du, gaur egun hizkuntzaren alde borrokan diharduten elkarte edo taldeak badaude ere. Bestalde, bai Eskoziako Alderdi Nazionalak, baita Eskoziako Parlamentuak ere hainbat neurri hartu dituzte azken urteetan, baina praktikan badirudite ez dutela funtzionatzen, gaelikoa ez delako egunerokoan asko erabiltzen. Esana dago neurri horiek gaelikoa gaur egun hitz egiten duten tokietan mantentzea dutela helburu, ez galdua dagoen eremuetara zabaltzea.

Lanaren ondorioak hauek izan badira ere, gaelikoa aztertzen oraindik ere lan handia dago, eta nik hurbilpen bat baino ez dut egin, lana zabalik utzita ikertzen jarraitzeko.

7. Iturriak

7.1. Erabilitako bibliografia

ASTIZ, Iñigo (2014): “Hizkuntzen korapiloa”, 2014. Azken kontsulta data: 2018ko otsailaren 28a, <https://www.berria.eus/paperekoa/1483/020/001/2014-04-24/hizkuntzen_korapiloa.htm>

BARBOUR, Stephen (2000): *Language and Nationalism in Europe*, Oxford University Press, Oxford.

BAUER, Michael (2014): “Speech and Language Technology on a shoestring and how to get there in a hurry”.<http://www.igaelic.net/wp-content/uploads/2014/07/SALT-on-a-Shoestring.pdf>

BLAS, Asier (2014): “Eskozia, Katalunia eta Euskal Herria”, 2014. Azken kontsulta data: 2018ko apirilaren 2a, <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2416/sezesio-prozesuak-konparaturik>>

Comhairle nan Eilean Siar. Azken kontsulta data: 2018ko martxoaren 1a, <<https://www.cne-siar.gov.uk/leisure-sport-and-culture/gaelic-language-and-culture/sgioba-na-gaidhlig/bilingual-policy-and-language-plan/>>

ECO, Umberto (2009): *Cómo se hace una tesis: Técnicas y Procedimientos de Estudio, Investigación y Escritura*, Gedisa, Bartzelona.

Education Scotland. Azken kontsulta data: 2018ko apirilaren 1a, <<https://education.gov.scot/>>

ELLIS, Peter Barresford (1985): *The Celtic Revolution*, Y Lolfa, London.

ELLIS, Peter Berresford (1993): *The Celtic Dawn. A History of Pan-Celtism*, Constable, London.

HUTCHINSON, Roger (2005): *A Waxing Moon. The Modern Gaelic Revival*, Mainstream Publishing Company, Edinburgh.

MCINCYRE, Michael (2009): *The Revival of Scottish Gaelic Through Education*, Cambria Press, New York.

PRICE, Glanville (1994): *The Languages of Britain*, Edward Arnold, London.

ROBERTSON, Boyd: “Gaelic: the Gaelic language in education in the UK.” <<https://pure.strath.ac.uk/portal/files/111423/strathprints003233.pdf>>

Scottish Government. Azken kontsulta data: 2018ko martxoaren 2a. <<https://beta.gov.scot/policies/languages/gaelic/>>

THOMSON, Derick (1983): *The companion to Gaelic Scotland*, Basil Blackwell Inc., New York.

ZABALTZA, Xabier (2009): *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Gedisa, Bartzelona.

ZABALTZA, Xabier (2014): "Neo-eisimeileachd, carson?".
<<http://www.pensamientocritico.org/xabzabII0214.htm>>

7.2. Bestelako iturriak

Glasgow Gaelic School. Mezua jaso nuen eguna: 2018ko martxoaren 16a.

Oban Times. Mezua jaso nuen eguna: 2018ko martxoaren 20a.

Scotland Education. Mezua jaso nuen eguna: 2018ko martxoaren 6a.

Scottish National Party. Mezua jaso nuen eguna: 2018ko martxoaren 14a.

Scottish Parliament. Mezua jaso nuen eguna: 2018ko martxoaren 15a.